



HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIAKO SAILBURUAREN AGINDUA, EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN ANTOLAMENDU ETA FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO LEGE-PROIEKTUA EGITEKO PROZEDURARI HASIERA EMATEN DIONA

I. Proiektatutako erregulazioaren beharra eta indarrean dagoen araudia.

Duela ia hogeita hamar urte ezarri ziren euskal Administrazio Publikoaren hasierako oinarriak, Jaurlaritzaren Legearen bidez eta euskal Sektorre Publikoaren definizioaren bidez, Euskadiko Ogasun Nagusiko Antolarauei buruzko lehen Legean.

Ordutik hona, aldaketa ugari izan dira gizartean, legerian, antolamenduan eta teknologietan, eta atzeraezina da araudia eguneratzea, antolamendu hori diziplitatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko funtzionamendua berritzeko, gaur egun nahiko sakabanatua baitago gure Administrazioaren erregimen juridikoa.

Gainera, Administrazioaren antolamendua harreman estuan dago bere funtzionamendu-arauekin, eta Administrazioak eboluzionatu beharra dauka gobernu-mota hurbilago, parte-hartzaileago eta eraginkorrago baterantz, gobernantza onaren paradigma berrien gainean oinarriturik.

Hortik abiatuta, gure ordenamendu juridikoak arautzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari dagokionez:

1.- Oinarrizko printzipioak, objektibotasuna, publikotasuna, deszentralizazioa, deskontzentrazioa eta koordinazioa –bere organoen artekoa eta Lurralde Historikoetako organoekikoa–, hierarkia eta erantzukizun juridiko bakarra zainduz jarduteko, 7/1981 Legean, ekainaren 30ekoan, Jaurlaritzarenean, 53. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.- Sektorre publikoko entitateen sailkapen instituzionala eta antolamenduari buruzko hainbat alderdi 1/1997 Legegintza Dekretuan, azaroaren 11koan, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duenean. Horri lotuta, 1/1988 Legeak, otsailaren 5ekoak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiarenak, 2. artikuluan zehazten du bere kontrol-eremuan sartzen dela Euskal Sektorre Publiko osoa, baita entitate horietatik etorritako diruak edo efektu publikoak administratzen edo erabiltzen dituzten entitate guztiak ere.

3.- Administrazioen funtzionamenduari buruzko hainbat alderdi osagarri, 30/1992 legeak, azaroaren 26koak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, ezarritako oinarrizko arauetatik abiatuta, Konstituzioko 149.1.18 artikuluan ezarritakoari jarraiki Administrazio bakoitzaren antolamendu eta funtzionamenduko berezitasunen arabera garatu beharreko alderdiei dagokienez, beste autonomia-erkidego batzuek dagoeneko egin duten bezala. Baina gure kasuan urte hauetan

prozeduraren garapen puntuala baino ez da egin hiru gai zehatzetan: 2/1998 Legean, otsailaren 20koan, Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzkoan; 8/2003 Legean, abenduaren 22koan, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarenean; eta 72/2008 Dekretuan, apirilaren 29koan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta bere erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzkoan.

4.- Administrazio elektronikoa ezarriz joatea, 11/2007 Legea, ekainaren 22koa, Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzkoa, garatuz, bi Dekretu hauen bidez: 232/2007 Dekretua, abenduaren 18koa, administrazio-prozeduretan bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoen erabilera arautzen duena, eta 183/2012 Dekretua, irailaren 25ekoa, Ingurumeneko administrazio-prozeduretan zerbitzu elektronikoaren erabilera arautzeko eta ingurumenean eragina duten jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko erregistroa sortzeko eta arautzekoa.

II. Aplikazio-eremua.

Lege honen aplikazio-eremu subjektiboa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa da, bere pertsonifikazio juridiko guztietan.

Kontuan izanda, bestalde, azken urteotan efizientziarik ezaren, eskumenen eta jardunen teilakatzeen eta bikoizteen inguruan egin den hausnarketarekin konektatzeko helburua, gai hori indarra hartuz joan baita gure arkitektura instituzionalari dagokionez, baina, batez ere, euskal sektore publikoak, multzoan hartuta, duen dimentsioaren inguruan, eta horrek beharrezko egiten du aplikazio-eremu bat diseinatzea Administrazio foralak eta tokikoak, eta horien sektore publikoak, barne hartuko dituen.

Hala ere, ulertu behar da kontzeptuaren hedadura horrek mugak izan behar dituela, Gernikako Estatutuko 37.3 a) artikulua Lurralde Historikoetako foru organoentzat pribatiboki erreserbatzen dituen antolamendu, erregimen eta funtzionamenduko eskumenetan ez sartzeko eta udalen autonomia ere errespetatzeko.

III. Kontuan hartzekoak izan daitezkeen beste araudi batzuk.

Hainbat aukera daude Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren antolamenduaren eta funtzionamenduaren erreformari heltzeko.

a) Erreformarik “ez egitea” ere barne hartuta, hau da, egungo erregulazioarekin jarraitzea, oinarritzko legeria estatalaren eta Autonomia Erkidegoko araudiaren bidetik.

Horren ondorioa egungo ordenamendu zatikatua eta sakabanatua da, euskal Administrazio publikoaren jarduna oinarritzko legeria zuzenean aplikatzearen mende egotea, atzean geratzea teknologiaren eta gizartearen premia eta

testuinguru berrietara moldatzeko orduan, eta ganoraz ez heltzea gure Administrazioak eta sektore publikoak berezkoak dituen problemei.

Bestalde, adierazitako moduan, erregulazio horrek hutsune larriak ditu eta moldatu beharra dago, besteak beste, oinarrizko eta erkidego mailako lege-arau berriak onartu direlako, arau horiek nahitaez bete beharrekoak direlako eta horrek, aldi berean, lege berriak ematera behartzen dituelako Legebiltzarra eta Autonomia Erkidegoko erakunde erkideak.

b) Lege berriak onartzea edo daudenak puntualki erreformatzea, araugintzako hainbat tresna autonomoren bidez (sektore publikoaren lege bat, gardentasun-lege bat, parte hartzearen lege bat, ebaluazio-lege bat, administrazioa antolatzeke lege bat...).

c) Gai horren inguruan dauden erregulazio-premia guztiak berariazko lege bakar batean biltzea eta ardatz nagusiak finkatzea, garai batean egin zuen bezala apirilaren 14ko 6/1997 Legeak, Estatuko Administrazio Orokorraren Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzkoak. Horrek ez du esan nahi dagoen erregulazio guztia testu bakar batean kodetzea eta dauden tresna legegile guztiak bertan elkartzea. Erreferentziazko testu bat izan behar du, koherentzia ematen duena, eta Administrazioaren antolamenduaren eta funtzionamenduaren oinarriak ezartzen dituen.

Azken aukera hori hautatu zuen Jaurlaritzak Eusko Legebiltzarrean aurkeztu zuenean bere garaian Euskal Administrazio Publikoaren lege-proiektua deitu zitzaion hura. Hala ere, hainbat gorabehera politikok ekimen hura erretiratzera eramán zuten Jaurlaritza, eta, orain, euskal gizartearen premien eta aukeren inguruan ahalik eta konkurrentzia zabalena biltzeko bokazioak aukera hau hautatzera bultzatu gaitu.

Proiektu honetan erdibideko irtenbide bat hautatuko da, hori baita egokiena legebiltzarrean beren hausnarketa azaldu zuten aukera politikoen iritzia kontuan izanda. Izan ere, arau sakabanatu pilo bat edukitzeak areagotu egiten du disfuntzioak eta arauen arteko kontraesanak egoteko arriskua, baina, aldiz, lege esanguratsu gutxi batzuk emateak aukera politikoki majoritarioari erantzungo dio. Horrela bada, ideia da: lege-proiektu batean sektore publikoaren antolamendu eta funtzionamenduari dagozkion alderdiak jasotzea, eta gero bigarren lege-proiektu batean, oraingoarekin batera edo geroago landuko den batean, gardentasunari eta gobernu onari buruzko gaiak arautzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren antolamenduari eta funtzionamenduari begira egindako Lege integral bat erreferentzia juridikoa izango da, herritarrek begi hobez ikusi eta balio berria emango diote, eta paradigma berrietan oinarritutako administrazio-kultura bat sortuko da, barruan nahiz kanpoan.

Gerora ere onar daitezke, jakina, beste alderdi zehatz batzuei buruzko legeak, baina lege horiek, Administrazioaren antolamenduan edo funtzionamenduan eragina izango badute ere, beren dimentsio propio eta berezia izango dute,

lehen aipatutako gardentasunarekin eta gobernu onaren gaian sakontzearekin gertatzen den bezala.

Adierazitakoaren ildotik eta 7/1981 Legeak, ekainaren 30ekoak, Jaurlaritzarenak, 26.8 artikuluan eta 8/2003 Legeak, abenduaren 22koak, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarena, 4. eta 5. artikuluetan diotenaren bidetik,

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.-

Euskal Sektore Publikoaren Antolamendu eta Funtzionamenduaren Lege Aurreproiektua egiteko prozedura has dadin agintzea, Agindu honetan finkatutako helburuak eta irizpideak betez eta, zehazki, honako hauek:

Xedea eta helburua

Lege-proiektu honen xedea eta helburua da arautzea:

1- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren antolamendua, erakunde-multzo konplexua baita, hainbat izaera juridiko dituen eta zuzenbide publikoaren edo pribatuaren mende egon daitekeena, eta bere izatea justifikatzen duena interes orokorreari erantzunez eta funtzio publikoak eskainiz.

2- euskal sektore publikoa esaten zaion horren kontzeptua, oinarri nagusiak eta sektorea osatzen duten entitate guztiak –Herri Kontuen Euskal Epaitegiari buruzko Legeak aipatzen dituenak Epaitegiaren kontrol-eremua zehaztean– integratzeko arauak.

3- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren funtzionamenduaren ardatz nagusiak, administrazio-izapideak egiteko modua berrituz eta gure gobernantza-eredua sendotu eta finkatuz, gizartearen, ekonomiaren eta erakundearen garapen iraungarria lortzeko helburuarekin, gobernuaren, gizarte zibilaren eta jarduera sozialaren lanaren arteko orekan oinarrituta.

Proposatutako erregulazioaren edukia

Erregulatu beharreko eremua izango da proposatutako araudiaren edukia, zehazki:

- Xedapen orokorrak (helburua, xedeak eta aplikazio-eremua).
- Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren osaera eta antolamendu instituzionala, sektorea osatzen duten entitate guztien sailkapena, Administrazio Orokorren egitura, antolamendua eta funtzionamendua, Administrazioen arteko eskumena, lankidetzeta eta koordinazioa, eraketa koherentearen beharra, dauden erakundeetan parte hartzea, berregituratzea eta azkentzea, eraketa-baldintzak, pertsona juridikoaren eta agindutako helburuen eta kontrol-prozeduren arteko egokitzapena, erakundearen erregistroa, Administrazio Orokorren eta sektore publikoko entitateen arteko harremanak.

- Administrazioaren funtzionamendua, gobernu onaren printzipioetan oinarrituta eta kontuan hartuta: kudeaketa publiko eta ebaluazio aurreratuko sistemak, herritarren eta administrazioaren arteko interakzioa eta administrazio elektronikoaren konfigurazioa, hizkuntzen arazoa gure jardunean finkatzea eta, azken finean, administrazio arduratsu eta eraginkorragoa konfiguratzeko lagunduko duten alderdi guztiak, gobernu demokratikoa, gizartearen egonkortasuna eta garapen ekonomikoa lortzeko nahitaezko betebeharrak gisa.

Bideragarritasun juridikoaren estimazioa

Lege berria bideragarria izango da juridikoki, oso-osorik sartzen delako 3/1979 Lege Organikoak, abenduaren 18koak, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Estatutuarenak, 10. artikuluko 2., 6. eta 24. ataletan aitortzen dizkion eskumen eskusiboetan, atal horietan arautzen baitira, hurrenez hurren, autogobernatzeko erakundeentzako antolamendu, erregimen eta funtzionamendua, Euskal Herriko Zuzenbide substantiboaren berezitasunetik eta beronen antolamendutik eratorritako prozedura administratiboa eta Euskadiko sektore publiko propioa, Estatutuko beste arau batzuk hura ukitzen ez duten neurrian.

Eta erregulazioak errespetatu egiten du Estatuaren oinarritzko araudia, Konstituzioko 149.1.18 artikuluko Administrazio Publikoen erregimen juridikoaren oinarriak buruz –administratuei tratatu berdina bermatuta horien aurrean– eta administrazio-prozedura erkideari buruz ematen dion eskumen eskusiboa baliatuz emana; eta oinarritzko araudi hori garatu baino ez du egiten Euskadiren zuzenbide substantiboari eta antolamendu propioari dagokienez.

Aurrez, sistema publikoaren informazio-printzipioak garatu dituzte, batetik, 7/1981 Legeak, ekainaren 30ekoak, Jaurlaritzarenak, 53. artikuluan (artikulu horrek ezartzen baitu Euskadiko Administrazioaren jarduteko printzipio izango direla objektibotasuna, publikotasuna, eraginkortasuna, deszentralizazioa, deskontzentrazioa eta bere organoen eta Lurralde Historikoetako organoen arteko koordinazioa), eta, bestetik, 27/1983 Legeak, azaroaren 25ekoak, Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta euren Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremanei buruzkoak, 2.2 artikuluan (Euskadiko Administrazioek, dagozkien eskumenen barruan, eraginkortasun eta koordinazio printzipioen arabera jokatzeko dutela ezartzen du artikulu horrek).

Horretaz gainera, kontuan izan behar dira 30/1992 Lege oinarritzkoak eta 6/1997 Legeak –apirilaren 14koak, Estatuko Administrazio Orokorren Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzkoak– aurreikusitako arauak, lege horiek kudeaketa-ereduak inplementatzeko printzipioak aldarrikatu baitituzte eta neurriak ezarri baitituzte, gero beste lege-testu batzuek garatu dituztenak hala nola 11/2007 Legeak –ekainaren 22koak, herritarrek Zerbitzu Publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzkoak–, 37/2007 Legeak –azaroaren 16koak, sektore publikoko informazioa berrerrabiltzeari buruzkoak–, 951/2001 Errege Dekretuak –uztailaren 29koak, Estatuko Administrazio Orokorren kalitatea hobetzeko esparru orokorrak finkatzen dituenak–, eta 1418/2006 Errege Dekretuak –abenduaren 1ekoak, Politika Publikoak eta Zerbitzuen Kalitatea Ebaluatzeko Agentziaren Estatutua onartzen duenak–, denak ala denak

demokrazia hobetzeko eta Estatuko Administrazioaren erregulazioa arrazionalizatzeko eta eguneratzeko. Zehazki, 6/1997 Legeak ezarri zuen ezinbestekoa dela Estatuko administrazio-egituren tamaina egokitzea, bikoiztasunik egon ez dadin eta antolamendua errazteko eta murrizteko.

Lege-proiektu honen oinarrian daude, halaber, 2000ko abenduaren 7ko Europar Batasuneko Funtsezko Eskubideen Gutuna, 41. artikuluan jasotzen baitu administrazio ona izateko eskubidea, eta 2001eko uztailaren 25eko Europako Gobernantzari buruzko liburu zuria, irekitasuna, parte-hartzea, erantzukizuna, eraginkortasuna eta koherentzia aldarrikatzen baititu demokraziaren oinarri eta gobernu onaren berme, Administrazioek egunerokoan, eta demokraziaren kalitatea eta erakundearen legitimitatea hobetu, "politika hobeen, araudi hobeen eta emaitza hobeen bidez" jarduteko jarraitu behar dituzten prozedurei dagokienez.

Bideragarritasun materialaren estimazioa

Lege berria bideragarria izango da materialki ere, hobetu egingo baita Administrazioaren antolamendua eta herritarren eta Administrazioaren arteko harremana.

1. Administrazioaren antolamenduari dagokionez, kontuan hartu behar da:

- 1/1997 Legegintzako Dekretuak –azaroaren 11koak, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duenak– zioen azalpenean aurreikusten zuela antolamendua arautu beharra: *"Antolaketaren esparrua nahikoa da, identitatearen aldetik, arauen mailan gorputz berezitua edukitzeko. Baina, horretaz gainera,..."* eta horrekin adierazten zuela araudi propio baten beharra
- Euskal Administrazioaren lege-oinarriak ezarri zirenetik oraingo araudi ekonomiko-finantzarioan etengabe sortu dira ente instituzionalak (organismo autonomoak eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoak) edo instrumentalak (sozietate publikoak, fundazioak eta partzuergoak), denetariko lege-erregimenekin.
- aldaketak izan direla gizartean, legerian, antolamenduan eta teknologian, eta aldaketa horiek erregulazioa eguneratzea eskatzen dutela, oraingo erregimen juridikoan dagoen arau-sakabanatzea gainditzea.
- kontzeptu orokor bat behar dela sektore publikoko entitate guztiak integratzeko, eta prozedura egoki bat administrazio-eratzearen premia eta arazoizkotasuna bermatzeko, behar bezala aukeratzeko zerbitzuaren xedearekin eta ematen duen funtzioarekin bat datorren tipologia egokia, Administrazio Orokorrarekiko atxikipena eta dependentzia, eta, halaber, bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioa, eta zer prozedura jarraitu behar den dagoeneko eratuta dauden entitateetan parte-hartzeko –baita Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikokoak ez direnetan ere–, edo entitate horiek berregituratu edo azkentzeko edo sektore publikokoak izateari uzteko.

Zehazki, antolamenduan eta funtzionamenduan bikoiztasunik edo errepikapenik egon ez dadin, koherentzia eta subsidiarioritasun printzipioak argi eduki behar dira, interes orokorrari zuzenean erantzuteko, eta Zuzenbide Publikoa lehenetsiz jardun. Informazio publikoaren betebeharra ere nahitaezkoa da, horretarako berariaz sortutako entitateen erregistro baten bidez.

Ordenamendu juridikoaren gaineko ondorioak

Lege berriak indarrean dauden arau hauek ukituko ditu:

- 1/1997 Legegintza Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena, eta, zehazki, besteak beste, III. Titulua eta Xedapen Gehigarri Bakarra.
- 8/2003 Legea, abenduaren 22koa, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduran Xedapen Orokorrak egiteko Prozedurari buruzkoa.
- 12/1994 Legea, ekainaren 17koa, Euskal Autonomi Elkarteko Fundazioei buruzkoa.

Administrazioen aurrekontuetan izango duen eragina, ukitzen duen arloan eta, kasu bakoitzean, dagokion jardueraren sektorean

Lege berria aplikatzeak ez du gastua handituko, izan ere, herritarrak artatzeari buruzko kudeaketaren eta ebaluazio eta kudeaketa publiko aurreratuko sistemen oinarritzko edukietatik aterako diren funtzio berriak funtzio propio gisa hedatuko direlako enplegatu publiko guztien artean, orain dituzten lanpostuen profilen edukia eraldatuz eta eboluzionatuz, zerbitzu berriak sortzeko premiarik gabe. Hau da, zerbitzu publikoaren prozesuak beste era batera kudeatuko dira. Bestalde, erregulazio berriak gastua arrazionalizatu eta gehiago kontrolatuko duela uste da, sektore publikoa berrantolatu eta kudeaketa publikoaren sistema aurreratuak ezarriko baitira.

Egin beharreko izapideak eta txostenak

Lege berria onartu ahal izateko, administrazio-prozedura jarraitu behar da, 8/2003 Legeak, abenduaren 22koak, xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzkoak, ezarritakoaren arabera.

Lege-aurreproiektuaren testua aurrez onartzeko Agindua emateko egin beharreko jarduketa guztiak burutu ondoren, ele bietan idatziko da, Gobernu Kontseiluaren Akordioari jarraituz. Aurreproiektu hori onartu ondoren, aginduzko txostenak edo izapideak bete beharko ditu, xedapen arauemaileak egiteko prozedurari jarraituz.

Kontuan izan behar da aurreproiektu honek oso hurbil dagoen aurrekari bat izango duela, euskal administrazio publikoaren aurreproiektu hutsegina alegia, eta, gainera, aldi berean izapidetu ahal izango dela aurreproiektu horretatik eratorritako beste aurreproiektu bat: gardentasunari eta gobernu onari buruzkoa. Horrek prozesua erraztu beharko luke, parte hartzeari dagokionez hain zurruna izateko premiarik gabe, esate baterako, orain dela gutxi jendaurrean jartzeko egindako izapidea berriro errepikatu beharrik ez izateko.

Bestalde, 8/2003 legeak ez du aurreikusten berariaz epeak laburtzeko presako izapide edo prozedurarik, baina 14. artikuluan esaten du izapide batzuk alde batera utz daitezkeela, behar bezala arrazoituz gero eta lege mailako arauak agindutakoak ez badira.

Aurreproiektu hau izapidetzeko presaren arrazoietako bat da, halaber, gardentasunaren eta gobernu onaren arloak arautzeko aurreproiektuarekiko duen interdependentzia. Beharrezkoa da, bestalde, debate publikoa ez lausotzea eta Eusko Legebiltzarreko taldeek Gobernuak proposatutako –eta azkenean bertan behera geratutako– erregulazio hari buruz azaldu zituzten arrazoiak, aurki erkatu eta baliozkotu ahal izatea aurreproiektu berrian.

Ez da beharrezkotzat jotzen genero-inpaktua neurtzeko izapidea berriro egitea, lehenik, erregulazioa izaeraz antolamenduzkoa delako funtsean, eta hori txostenetik salbuesteko kasuetako bat delako, eta, bigarrenik, txosten hori osorik egin delako orain dela gutxi, euskal administrazio publikoaren lege-aurreproiekturako.

Era berean, ez da beharrezkoa ikusten Euskadiko Kontsumoko Kontsulta Batzordeari eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoko Ekonomia eta Gizarte Batzordeari txostenak eskatzea ere. Kasu horietan, lehen aipatutako aurreproiektuari buruz emandako iritzia balioko luke.

Azaldutako arrazoi horiengatik, honako izapide hauek izango dira egin beharrekoak:

- Herri Administrazio eta Justizia Saileko zerbitzu juridikoen aginduzko txostena, eta, halaber, Funtzio Publikoaren aurre-txostenak, Herritarrei Arreta emateko Zuzendaritzarenak, Administrazioaren Berrikuntza eta Hobekuntzarenak, eta Hizkuntza Politikarenak.
- Entzunaldi-izapidea emango zaie enpresa- eta sindikatu-elkarteei, bai eta EAEko erakunde guztiei –EUDELI iritzi-eskaera aurkeztuta– eta 3 Foru Aldundiei ere. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko Sail guztietara ere bidaliko da, alegaziorik balego ere.
- Memoria ekonomikoa egin aurretik –non administrazio-kargen eta herritar guztientzako kostuen azterketa joango den–, aginduzko txostena jasoko da Kontrol Ekonomikoko Bulegotik. Alde horretatik, lehen adierazitako presa dela eta, aurreko izapideekin batera bideratu beharko da izapide hori ere.
- Espedientearekin batera joango da prozedura osoaren memoria laburra ere, aipatutako 8/2003 Legean ezarri bezala.
- Azkenik, Gobernu Kontseiluaren mende jarri aurretik, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena jasoko da.

Europar Batasunaren aurreko izapideak

Lege-proiektu honek ez du izapiderik egin beharko Europar Batasunaren aurrean, kontuan hartuz aplikazio-eremua eta araudiaren helburua eta xedea.

Idazketa elebiduneko metodoa

Euskararen 10/1982 Legeko 8.1 artikulua betetze aldera, HAEEko Itzultzaileen Zerbitzu Ofizialak itzuliko du araudiaren gaztelaniazko/euskarazko bertsioa, lege-proiektu bat denez.

Era berean, adierazitako moduan, 2013ko maiatzaren 14ko Gobernu Kontseiluaren akordioa, "lege, legegintza-dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorren idazketa elebidunerako neurriak onartzekoa", beteko da eta egon litezkeen negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak testu elebidun osoarekin jarraituko dira, eta testu elebidun osoa izango da aginduzko txostenak eta irizpenak eskatuz bidaliko dena instrukzioaren hurrengo faseetan ere.

Bigarrenena.-

Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza izendatzea legegintzako prozedura hau izapidetzeko, horretarako eskumena ematen baitio Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuko 18. artikuluko b) epigrafeak: "*Antolaketaren eta prozeduraren arloko xedapen orokorren proiektuak, ekimenak eta arau-gidalerroak prestatu eta proposatzea, horiek sinplifikatzea eta horien kalitatea eta gizarterako eraginkortasuna hobetzea bilatuz*", eta kontuan izanda 20/2012 Dekretuak –abenduarien 15ekoak, Lehendakariarenak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak– 6. artikuluko lehenengo paragrafoko f) eta l) epigrafeetan Herri Administrazio eta Justizia Sailari esleitzen dizkion egitekoak eta jardun-arloak eta dagoeneko aipatutako 188/2013 Dekretuak, apirilaren 9koak, 15. artikuluko bigarren paragrafoko h) eta m) arteko epigrafeetan Funtzio Publikoko Sailburuordetzari esleitzen dizkion eskumenak.

Hirugarrena.-

Legesarea izeneko lankidetzagunean Agindu honen berri ematea, xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak onartu zituen Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakian xedatutakoa betez.

Vitoria-Gasteizen, 2015eko ekainean.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO